



3. TXOSTENA

MUNDU HOBE, JASANGARRI ETA BAKETSU BATERA IREKIA DEN NAZIOA

AURKIBIDEA

1.- Hitzaurrea

2.- Txostenaren helburuak

3.- Testuinguru historikoa eta aurrekariak

4.- Egungo diagnostikoa

Zer erronkei heldu beharko diegu?

1. Gatazkak mundu mailan
2. Bloke handien arteko aliantzak
3. Gerra hibridoak eta desinformazioa
4. Europar Batasuna zabaltzea
5. Nazioarteko hauteskunde-emaitzen joerak eta horiek balio demokratikoetan eta berdintasunean, inklusio eta justizia sozialean, jasangarritasunean eta lehiakortasunean duten eragina
6. Lehiakortasunarekin, immigrazioarekin, iraunkortasunarekin, digitalizazioarekin edo demografiarekin lotutako erronkak

5.- Euzko Alderdi Jeltzalearen estrategiaren sostengu diren printzipio eta oinarri politikoak

6.- Euzko Alderdi Jeltzaleak jarraitu beharreko helburu eta ekintza estrategikoak zehaztea

A) Helburuak

1. Energia-lehiakortasuna
2. Lehiakortasun teknologiko-digitala
3. Lehiakortasun sozial-globala eta balio demokratikoak eta bakezkoak sustatzen dituen gizartea

B) Proiektu estrategikoak

1. Makroeskualde Atlantikoa sortzea eta Arku Atlantikoa eta Euroeskualdea bultzatzea
2. Ahalmen diplomatiko guztia aprobetxatzea
3. Euskal Diaspora eragile aktibo gisa Euskadiren etorkizuneko garapenean

7.- Ondorioak

Nazioarteko iturriak

1.- HITZAURREA

Txosten honetan, eta lehenago egin diren txostenetan argi geratu denez Euzko Alderdi Jeltzaleak jatorritik duen izaera eta konpromiso europazalea, eta, are garrantzitsuagoa dena, zergatik den ezinbestekoa Europar Batasuneko (EB) kide izatea munduari irekitako nazio baten – Euskadi – konexio naturalaren ardatz gisa, lehiakortasunaren, gizarte-kohesioaren eta identitatearen helburu markatuak gauzatu nahi baititu; hala, egungo egoera geopolitikoaren azterketa txiki bat egin nahi da, ondorengoak kontuan hartuta:

- Mundu mailan ematen ari diren gatazkak.
- Gerra hibridoak eta desinformazioa.
- Bloke handien arteko aliantzak.
- Sortzen ari diren eragile geopolitikoak.
- Nazioarteko hauteskundeetako emaitzen joerak eta balio demokratikoetan, berdintasunean, inklusioan eta justizia sozialean duten eragina.
- Lehiakortasunari, immigrazioari, iraunkortasunari, digitalizazioari edo demografiari lotutako erronka globalak.

Gure ibilbide-orriak argi eta garbi egiaztatu behar du zer garen, gaur egun non gauden (Euskal Diaspora, harremanak Europako Alderdi Demokratarekin, Renew Europe...) eta nazioarteko gure proiektu estrategikoak zein diren (Makroeskualde Atlantikoa, Euroeskualdea eta Arku Atlantikoa, euskararen ofizialtasuna eta euskal kulturaren sustapena munduan, nazioarteko konektibitatea eta inbertsioak erakartzea, giza eskubideen eta balio demokratikoen defentsa...).

Hortik abiatuta, identifikatu behar dugu non, nola eta norekin nahi dugun eta norekin sendotu nahi ditugun harreman horiek, eta gure ustez zeintzuk izan behar duten marra gorriak, agiri honen bigarren puntuan ezarritako helburuak lortzeko. Era berean, txosten honek EAJ-PNVren nazioarteko harremanen eta harreman diplomatikoen gobernantza-eredu bat planteatzen du, alderdi gisa koordinatuta egotea eta sinergia politikoak aprobetxatzea ahalbidetuko diguna, tokikotik globaleraino eta alderantziz.

2.- TXOSTENAREN HELBURUAK

Hasierako puntuan adierazitakoari jarraipena emanez, alderdi gisa, gure nazioarteko helburuek balio behar dute garena defendatzeko eta norantz jo nahi dugun bultzatzeko, dagoeneko ditugun nazioarteko sareak eta harremanak aprobetxatuz eta berriak eraikiz, baina gure funtsa galdu gabe.

Mundu global batean bizi gara, eta bertan:

- Egunetik egunera gehiago eragiten digu inguratzen gaituen guztiak, baita planetako beste leku eta leku batzuetan hartzen diren erabaki politikoek ere.
- Aldi berean, urruntasuna sentitzen dugu Europako eta nazioarteko politikarekiko.
- Eta gerran bizi diren edo oinarrizko eskubideak urratzen zaizkien pertsonen irudi eta informazioen aurrean insentsibilizatzeko arriskua dugu.

Ukaezina da Euskadik lehiakortasunaren eta gizarte-ongizatearen arloko erronka globalak partekatzen dituela beste eskualde, nazio eta estatu batzuekin, nahiz eta beste eragile batzuekiko dugun aldea ahots propioarekin egiteko borondatea, gaitasuna eta bokazio argia den. Hori esanda, txosten honen helburua nazioarteko ekintza politikorako estrategia propioa ezartzea da, honako hauetarako plataforma izan dadin:

- Gainerako txostenetan ezarritako helburuak lortzea.
- Gure alderdiari lotutako nazioarteko marka indartzea.
- Datozen urteetako nazioarteko proiektu estrategikoen zorroa identifikatzea.
- Nazioarteko joera geopolitikoak identifikatzen lagunduko diguten eta inspirazioa eta informazioa emango diguten mekanismoak definitzea, aukerak aprobetxatzeko eta balizko arrisku operatiboei, kudeaketakoei eta politiko-sozialei aurrea hartzeko.
- Gure ekintza politikoa garatzeko beharrezkoak eta estrategikoak diren nazioarteko aliantzak identifikatzea.

Ulertzen dugu Nazioarteko Ekintza Politikoa EAJ-PNVren herrialde-estrategia politikoaren zati bat dela, eta, horregatik, funtsezkoak izango dira legegintza-ganberen, nazioarteko erakundeen eta, oro har, ordezkartza dugun guneen estrategiak, proiektuak, ekintzak eta posizionamenduak koordinatzeko eta komunikatzeko mekanismoak, ahalik eta inpaktu eta etekin handiena lortzeko.

3.- TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AURREKARIAK

Euskadi Europako herririk zaharrena da, lurralde honetako biztanleen memoria daukagunetik Bidasoaren eta Mendebaldeko Pirinioen alde banatan bizi garela esan dezakegu, eta Europako historiaurrearen lekukotasun bizi bakarra den hizkuntza bat hitz egiten dugu oraindik. Alde horretatik, gure biztanleek eta, bereziki, gure itsas-gizonek, mendeetan zehar Europako itsasoak zeharkatu dituztenek, apalki lagundu dute Europako kontinentearen espiritua eta borondatea eratzen.

Bi ardatz iraunkor daude, eta horien gainean oinarritu da gure ibilbide politiko luzea Europa baketsu eta politikoki batu bat eratzeko helburuan. Ideia hori European azaleratu eta loratu zen, batez ere gure kontinentea suntsitu duten gerrak saihesteko, batez ere aurreko mendean.

Gure diskurtsoaren eta ekintza politikoaren lehen ardatza Europa Federal baten alde egitea izan da, mundua osatzen duten eskualde-blokeen baitan indarra izateko bokazioarekin. Askotariko errealitateak aintzatetsiz eta errespetatuz eraikiko den Europa. Hau da: gizabanakoa, udalerrria, eskualdea, nazioa eta estatua. Gaur egun subsidiarotasun-printzipioa esaten zaion hori errespetatuz eraikitako Europa Federala.

Gure politika europarraren bigarren ardatza da gure Herria behin eta berriz berrestea, espazio politiko propioa dagokion nazio gisa. Beraz, Euskal Nazioa Europa Federal horretako subjektu eta protagonista politikoa izan dadin lan egiten dugu, non Federazioko gainerako kideek, berdintasunean, bat egiten duten eta subiranotasuna partekatzen duten.

EAJ-PNVk nazioarteko hainbat harreman ezarri ditu bere historian zehar, bere kausa abertzalea testuinguru globalean sendotzera bideratuz eta balio demokratiko, europazale eta federalistak sustatuz:

- **Aliantzak erbestaldian:** frankismoan, EAJ-PNVk erbestetik jardun zuen, eta Bigarren Mundu Gerran aliatutako herrialdeen laguntza bilatu zuen, hala nola Erresuma Batuarena, Frantziarena eta Estatu Batuena. José Antonio Agirre Lehendakariak zeregin nabarmena izan zuen euskal kausa demokraziaren aldeko borrokaren berezko alderdi gisa sustatzeko. Bigarren Mundu Gerran, Eusko Jaurlaritzak, erbestean, borrokarako unitate bat eskaini zuen armada aliatuen barruan. Izan ere, euskal gudariak Girondeko departamenduaren zati bat askatu zuten, eta De Gaulle jeneralak, Frantzia Libreko buruak, unitate hori ikuskatu zuen, ikurrina zeramala.
- **Europako harremanak:** Bigarren Mundu Gerraren amaieratik, EAJ-PNV mugimendu demokratiko-kristauekin eta europazaleekin lerrotatu zen. Nazioarteko Demokrata Kristauaren aitzindari izan ziren Nouvelles Equipes Internationales (NEI) bezalako sareetan aktiboki parte hartu zuen. Gainera, Frantziako Mugimendu Errepublikano Popularra eta Italiako Demokrazia Kristaua bezalako alderdiekin kolaboratu zuen. Harreman horiek Europako integrazioan zuten eragina sendotzea eta federalismoa sustatzea zuten helburu, nazioarteko estrategiaren funtsezko printzipio gisa. EAJ-PNVk autodeterminazioa eta estaturik gabeko nazioen eskubideak defendatzen dituzten alderdiekin lan egin du, hala nola SNP (Scottish National Party), Plaid Cymru (Gales) edo Gilles Simeoni Korsikako presidentearen Femu a Corsica alderdiarekin. Alderdi horiekin egindako aliantzek erabakitze eskubideari buruzko estrategiak partekatze balio izan dute.
- **Latinoamerikan egotea:** frankismo garaian erbesteratuta egon zen bitartean, EAJ-PNVk loturak ezarri zituen alderdi eta mugimendu politikoekin Euskal Diaspora esanguratsuak zituzten herrialdeetan, hala nola Argentinan, Txilen, Mexikon eta Venezuelan. EAJ-PNV, historikoki, loturak izan ditu nagusiki Amerikako demokrazia kristauarekin lotutako alderdiekin, ODCaren (Amerikako Erakunde Demokrata Kristaua) babespean, eta bere sareak euskal nortasuna eta balio demokratikoak sustatzeko erabili zituen. Harreman eta lotura horiek funtsezkoak dira oraindik ere lotura ekonomiko, kultural eta politikoak indartzeko.
- **Nazioarteko erakundeetan parte hartzea:** EAJ-PNVk ere zeregin aktiboa izan du Europako erakundeetan. Europako Alderdi Demokratiko kidea da, Europako proiektua indartzea eta eskualdeekiko errespetua defendatzen duten beste alderdi zentrista eta erregionalista batzuekin batera. Europako Parlamentuan eta Eskualdeetako Lantaldean, EAJ-PNV Renew Europe taldean sartuta dago. Jarrera horri esker, federalismoa sustatu du Europar Batasunaren barruan.

Laburbilduz, bere eragina zabaltzeko, bere helburu politikoetan aurrea egiteko eta mundu mailan euskal kausari ikusgarritasuna emateko, EAJ-PNVk lankidetzak-estrategiak erabili izan ditu nazioartean aurkitu dituen antzeko mugimenduekin eta diplomazia kulturalarekin, bai eta diaspoekin dituen harremanak ere.

4.- EGUNGO DIAGNOSTIKOA

Gaur egun, paradigma aldaketa baten lekuko izaten ari gara mundu mailan. Berlingo Harresia erori zenetik eta Gerra Hotza amaitu zenetik, 1989an, nazioen arteko harreman politiko eta komertzialen ikuspegi aldean izan zen eta globalizatzailea zabaldu zen. Azken 30 urteetako globalizazio-aldi horren adibide dira, besteak beste, merkataritza-muga-zergeen jaitsiera eta alde anitzeko akordioak, hala nola Parisko Akordioa.

Erronka berriei egin behar diegu aurre: Errusiaren eraso-gerra Ukrainaren aurka, gero eta ezegonkortasun handiagoa Ekialde Hurbilean, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza-gerra, Txinako industria-domeinuaren estrategia edo AEBetako administrazio berriaren klima-aldaketaren aurreko jarrera.

Gure kontinentearen indar ekonomikoa eta protagonismo politikoa galtzeko arriskuak erantzun bat ematera eraman behar gaitu. Bloke antagonikoetan eta lehiaren bidez banatutako mundu baten paradigma berriak Europa eraman behar du burujabetza energetiko, teknologiko, komertzial eta, batez ere, defentsakoaren aldeko apustua egitera, zentzu holistikoan.

Nazioarteko ordena berri baten oinarriak mugitzen ari diren nazioarteko testuinguru konplexu eta nahasi honetan, Euskadi Europarekin eta munduarekin lotzen duen lotura da, eta hala izaten jarraitu behar du, nazio eta demokrazia gisa ditugun balioak.

Totalitarismoei eta munduan demokrazia deuseztatzen saiatzen diren populismoei aurre egin behar diegu. Demokrazia horrek giza eskubide guztien errespetua, aniztasuna eta inklusibotasuna bermatu behar ditu. Planetaren eta garapen iraunkorraren alde egin behar dugu, desberdintasunei aurre egin behar diegu eta pertsona eta nazio guztientzako bake, segurtasun eta askatasuneko espazio handi bat eraiki behar dugu. Balio horiek eztabaidaezinak dira.

ZER ERRONKEI HELDU BEHARKO DIEGU?

1. Gatazkak mundu mailan

Mundua gatazka kopururik gorenera iritsi da, Bigarren Mundu Gerraz geroztik. Aktibo dirauten 56 gerrek 92 herrialde barne hartzen dituzte, Institute for Economics and Peace erakundearen bake globalari buruzko ikerketaren arabera: Ukraina, Gaza, Sudan, Etiopia, Afganistan, Siria, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kolonbia, besteak beste. Bakearen narriatzea areagotu egin da azken hamarkadan, eta oso bereziki azken bost urteotan.

1.1 Errusiaren eraso-gerra Ukrainaren aurka

Gatazka hau Errusiak hasi zuen Ukrainaren aurka, eta azken hau babesten dute NATOk, Estatu Batuek eta Europar Batasunak. Gerrak 1.000 egun bete ditu 2024ko azaroaren 19an, eta Errusia ezegonkortzeko elementu eta Europaren eragin geopolitikoa definitzeko agertoki nagusi bihurtu da. Aldi berean, mendebaldeko aliatuen arteko lankidetzak militarra indartzeko balio izan du.

1.2 Ekialde Hurbileko gatazka

Gatazka honek Hamas eta Hezboláh bezalako talde armatuekin aurrez aurre jartzen du Israel Gazan, Zisjordanian eta Libanon. Eskualdeko gatazka bihurtu da, Iranen parte-hartzearekin, eta ezegonkortasun handiagoa eragin du inguru horretan. Nazioartean zatiketa sakonak sortzen dituen gatazka da, bere ibilbide historikoagatik.


1.3 Tentsioak Asian

Indo-Pazifikoko eskualdean, AEBk Japonia, Hego Korea eta Australiarekin daukaten koalizioa gidatzen dute, Txinaren gorakadari aurre egiteko, bereziki Taiwan eta Hegoaldeko Txinako Itsasoan nagusitasuna lortzeko ematen den gatazkan. Errusiak eta Txinak aliantza estrategikoa dute mendebaldeak eskualde horretan duen eraginaren aurka.

1.4 Afrikako gatazkak (hala nola Sudan eta Sahel)

Afrikako herrialdeetako barne-borrokek eskualdean eragina izan nahi duten kanpoko potentziak inplikatzeko dituzte, hala nola Txina edo Errusia (Wagner taldearen bidez) eta beste eragile global batzuk. Gatazka horiek nazioarteko arreta erakarri dute, inplikazio humanitario eta estrategikoengatik.

Jarraipena egin behar zaien bost gatazka



2. Bloke handien arteko aliantzak

Gaur egun, hainbat gatazka beliko esanguratsuk markatzen dute panorama geopolitiko, eta horietan potentzia globalen arteko aliantza eta tentsio multzo handiak identifikatzen dira. Gatazka horiek gero eta polarizazio handiagoa islatzen dute, eskualde-egoeraren arabera aliantza dinamikoekin.

Panorama geopolitiko horretan eragile berriak sortu dira, ekonomiaren gorakadarekin, nazioarteko foroetako presentziarekin edo baliabide estrategikoak mobilizatzeko gaitasunarekin lotuta. Sortzen ari diren eragile horiek botere globalaren dinamika birdefinitzen ari dira, Mendebaldeko lidergo tradizionalaren alternatibak aurkeztzen ari dira, eta gatazken konponbidean eta mundu-ordena berri baten sorreran gero eta paper garrantzitsuagoa izan nahi dute. Hona hemen garrantzitsuenetako batzuk:

2.1 Estatu Batuak

Esparru atlantikoan, argi eta garbi defendatzen dugu lankidetzaren aldeko jarrera, baina Europa Estatu Batuen mende jarri gabe. Alderdiaren ikuspegi atlantista Europa batu eta indartsu batean oinarritzen da, modu independentean jarduteko eta nazioartean bere ahotsa garatzeko gai izango dena. Lankidetzari hori sustatu behar da Europar Batasunak bere interesak defendatzeko duen autonomia eta gaitasuna arriskuan jarri gabe, eta Atlantikoko bazkideekin harreman orekatuak eta elkarrekiko errespetuzkoak ezarri. Ildo horretan, uste dugu Atlantikoaren bi aldeetako arteko lerroak funtsezkoa dela erronka globalei aurre egiteko, betiere EBk erronka horiei modu independentean erantzuteko duen gaitasuna mugatzen ez bada.

2.2 Txina

Eragile hau 'berria' ez den arren, nazioartean duen proiektioak gora egin du nabarmen. Txina Zerrendaren eta Ibilbidearen Ekimena (Belt and Road Initiative) bezalako ekimenen buru da, eta nazioarteko ordena birmoldatzea du helburu, Mendebaldearen alternatiba gisa aurkeztuz. Afrikan, Latinoamerikan eta Asian duen eragin ekonomiko eta teknologikoak lider gisa kokatzen du bloke global berri batean. Trantsizio energetikorako beharrezkoak diren lehengai kritikoen gaineko domeinua eta kontrola nabarmendu behar dira, baita balio-kate berrietan duten nagusitasuna ere.

2.3 Latinoamerika

Latinoamerika eta Karibe funtsezko aliatuak dira arauetan oinarritutako nazioarteko sistema indartzeko. Kultura-, merkataritza- eta inbertsio-harremanak ditugu, eta interes bera dugu hazkunde iraunkorra sustatzeko eta erresilientzia ekonomikoa hobetzeko. Bi eskualdeek gizarte inklusiboak eta jasangarriak eraiki nahi dituzte, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) duten konpromiso komuna oinarri hartuta. Bat eginda, bidezko trantsizio ekologiko eta digitala gida dezakete, bereziki Global Gatewayren inbertsio-estrategiara jotuz. Beraz, Latinoamerika funtsezko aliatua da interes komunak hobeto defendatzeko eta, kide garen aldetik, munduko erronkei batera aurre egiteko..

2.4 India

Indiak garrantzia irabazi du bere hazkunde ekonomikoari esker, informazioaren teknologian lider gisa duen posizioari esker eta G20 eta BRICS bezalako erakundeetan duen eragin diplomatikoari esker. Narendra Modiren gidaritzapean, Indiak orekatu egin ditu Estatu Batuekin eta Errusiarekin dituen harremanak, eta Hego Globalean funtsezko ahots gisa finkatu nahi du, garrantzitsua baita hazten ari den merkatu gisa eta bere giza kapital eta kapital teknologikoagatik.

2.5 Turkia

Turkiak, Recep Tayyip Erdoganen gidaritzapean, kanpo-politika aktiboagoa hartu du, eta funtsezko zeregina izan du Siria, Kaukaso (Nagorno Karabaj) eta Libiako gatazketan. Europaren eta Asiaren artean duen posizio estrategikoak, bere gaitasun militarrekin batera, gero eta eragin handiagoa duen bitartekari eta aktore bihurtu du.

2.6 Saudi Arabia

Saudi Arabiako erresumak bere eragina handitu du Mohammed bin Salman printze oinordekoaren lidergoarekin, bere ekonomia dibertsifikatuz (NEOM bezalako proiektuak) eta Yemengo gatazka bezalako gatazketan bitartekari izanez. Gainera, zeregin aktiboa izan du petrolioaren prezioak egonkortzeko OPEP+aren bidez, ekonomiaren dibertsifikazioari eta tokiko industriaren sorrerari lehentasuna emanez eta energiaren prezio baxuak aprobetxatuz. Gainera, tokiko enplegua sortu du eta energia berriztagarriak eta ekonomia zirkularra bultzatu ditu.

2.7 Arabiar Emirerri Batuak eta Qatar

Antzeko garapen-ereduak dituzte. Gainera, duten posizio estrategikoa kontuan hartuta, eta esparru ekonomikoaz haratago (euskal enpresak ere hor ditugu), bi herrialdeek funtsezko zeregina bete dute gatazkek konpontzeko bitartekaritzan.

2.8 Brasil

Luiz Inacio Lula da Silvaren gidaritzapean, Brasilek ikuspegi multilateralari heldu dio berriro, ingurumen-jasangarritasuna bezalako gaien buru izatea bilatuz eta BRICS eta G20 blokeetan duen papera biziberrituz. Latinoamerikan potentzia gisa duen posizioak funtsezko eragile bihurtzen du eskualdeko eta nazioarteko diplomaziarako.

2.9 Saharaz hegoaldeko Afrika eta Sahel

Aktore berezia ez den arren, Sahel bezalako eskualdeak eta Nigeria eta Hegoafrika bezalako herrialdeak garrantzia hartzen ari dira. Txinarekiko eta Errusiarekiko lankidetzak, terrorismoarekin eta baliabideen ustiapenarekin lotutako erronkekin batera, interes globala areagotu dute eremu horietan. Maroko jarduera ekonomikoaren joan-etorrien onuraren adibide bat da.

2.10 Asiako hego-ekialdea eta Japonia

Asiari dagokionez, Asiako hego-ekialdeko herrialdeek aukerak dituzte Euskadin ekoiztako ondasunak eta zerbitzuak merkaturatzeko, besteak beste, Indonesia, Malaysia edo Vietnam. Japonia eta Singapur, era berean, giza garapen maila handiko herrialde gisa identifikatzen dira, eta, beraz, Euskadira transferitu daitezkeen jardunbide egokiak ateratzeko herrialde gisa har ditzakegu.

3. Gerra hibridoak eta desinformazioa

Kontzeptu hau —2000ko hamarkadaren hasieran erabili zen lehen aldiz— konfrontazio-estrategien implementazioarekin lotuta dago, metodo ez-konbentzionalak erabiliz. 'Gerra hibrido edo desinformazio' mota bat izango lirateke, besteak beste, zibererasoak edo gobernu jakin baten jarreraren aurka doazen mezu-uholde masibo bat abiaraztea sare sozialetan.

Insurgentzia edo 'fake news' bezalako mekanismoak erabiltzea ere borroka estrategia ez-tradizional horien zatitzat hartzen da. Propaganda eta probokazioa funtsezko faktoreak dira, Bielorrusiarekin ikusi dugun bezala Poloniako mugan sustatu duen migrazio-gerra hibridoaren bidez.

4. Europar Batasuna zabaltzea

Batasuna zabaltzeak onurak dakarzkie estatu kide berriei eta EBri. Egonkortasun politikoa bermatzen du, herritarrek EBko edozein lekutan bizitzeko, ikasteko edo lan egiteko askatasuna, eta merkataritza handitzea merkatu bakarrera sartzearen bidez, finantzaketa eta inbertsioaren bidez, oparotasunaren bidez eta Europako herritarrentzat eta enpresentzat aukeren bidez. Gizarte-, ingurumen- eta kontsumo-arau zorrotzenek eta kultura-aniztasun handiagoak Batasunaren proiektua aberasten dute.

Une honetan, inoiz baino gehiago, Batasunak bakea izan behar du ardatz. Bakean inbertitzeak Europa seguruago batera eramango gaitu.

Arestian aipatutako guztiagatik babesten dugu Europar Batasuna zabaltzea, baldin eta estatu kide berriek estandar demokratiko zorrotz eta sendoak betetzen badituzte — gaur egun dauden estatuak nahiz estatu kideen artean sortutako estatu berriak izan daitezke —, egonkortasuna, bakea eta kontinenteko oinarrizko eskubideekiko errespetua bermatuz. Zabalkuntza horrek demokrazia eta Giza Eskubideak indartzeko tresna izan behar du, ez bakarrik European, baita esparru horren onura izan dezaketen hurbileko eskualdeetan ere. Estatu berrien integrazioa, gure ikuspegitik, balio partekatuak indartzeko eta bakearen eta oparotasunaren Europako proiektua sendotzeko aukera gisa ikusi behar da, EBren egonkortasuna arriskuan jartzen duen edo gobernu-sistema autoritario edo errepresiboak dituzten herrialdeak barne hartzea dakarren hedapen oro saihestuz.

5. Nazioarteko hauteskunde-emaitzen joerak eta horiek balio demokratikoetan eta berdintasunekoetan, inklusio eta justizia sozialean, jasangarritasunean eta lehiakortasunean duten eragina

2024ko hauteskundeetako emaitzak joera garrantzitsuak markatzen ari dira, demokraziari, berdintasunari, iraunkortasunari eta justizia sozialari eragiten diotenak. Joera horiek erakusten dute erakunde demokratikoak indartu behar direla, eskubide sozialak babestu behar direla eta ekonomia iraunkorra eta lehiakorra sustatu behar dela, gero eta handiagoa den zatiketari eta mesfidantza globalari aurre egiteko.

5.1 Polarizazioa eta populismoa

Agenda populista eta autoritarioak dituzten liderren gorakada nabari da hainbat eskualdetan, hala nola Javier Mileiren kasuan Argentinan edo eskuin muturraren hazkunderan Europan. Dinamika horiek zalantzan jartzen dute balio demokratiko tradizionalakiko konpromisoa, hala nola berdintasuna eta giza eskubideak, narratiba baztertuaileak eta muturreko nazionalistak bultzatuz. AEBn, Donald Trump boterera itzuli izanak egonkortasun demokratiko globalerako eta nazioarteko lankidetzarako arriskuak planteatzen ditu iraunkortasuna eta giza eskubideak bezalako gaietan. Herritarren nahigabeak, aurre egin beharreko egoera ekonomikoaren narriadurari aurre egiteko irtenbiderik eza dela eta, lagundu egiten du joera horretan.

5.2 Demokraziaren higadura eta erronka globalak

Lehen balio demokratikoetan buru ziren herrialdeak barne-erronkei aurre egiten ari dira. Adibidez, AEBetako eta Europar Batasuneko polarizazioak ekintza koordinatua ahuldu dezake klima-aldaketa bezalako erronka globalen aurrean. Gainera, desinformazioak, gerra hibridoek edo atzerriko herrialdeen esku-sartzeak arriskuak sortzen dituzte hauteskunde aske eta bidezkoak egiteko, sistema demokratiko tradizionalakiko mesfidantza areagotuz.

5.3 Iraunkortasuna eta lehiakortasun ekonomikoa

Maila globalean, iraunkortasuna lehenesten duten herrialdeak lekua galtzen ari dira hazkunde ekonomiko azkarra bultzatzen duten aukera politikoen aurrean, askotan politika klimatikoaren kaltetan. Aitzitik, Latinoamerika bezalako eskualdeek inbertsio jasangarriarako aukerak eskaintzen dituzte, bereziki Mexikon, non energia berriztagarriarako trantsizioa funtsezkoa izan litekeen, nahiz eta azpian tentsio politikoak izan.

5.4 Erresilientzia eta berrikuntza demokratikoa

Mehatxu horiek gorabehera, kasu batzuetan demokraziek erresilientzia erakusten dute. Adibidez, Brasilek atzera bota ditu lidergo ultraeskuindarrak, eta horrek sistema demokratikoek beren burua berritzeko eta eskubide sozialak defendatzeko duten gaitasuna azpimarratzen du, nahiz eta lorpen horiek ahulak diren eta herritarren parte-hartze handiagoa eta erreforma sakonak behar dituzten sendotzeko.

6. Lehiakortasunarekin, immigrazioarekin, iraunkortasunarekin, digitalizazioarekin edo demografiarekin lotutako erronkak

Lehiakortasuna, immigrazioa, jasangarritasuna, digitalizazioa eta demografia bezalako funtsezko arloetako egungo erronka globalek elkarri lotutako aukerak eta erronkak dituzte, erantzun koordinatuak eskatzen dituztenak:

6.1 Lehiakortasuna

Ekonomia globalak aurre egin behar die hornidura-kate zatikatuei eta merkataritza-tentsioei lotutako erronkei. Digitalizazioa lehiatzeko modua eraldatzen ari da, energia garbietarako trantsizioan gero eta ikuspegi handiagoarekin eta eraginkortasuna iraunkortasunarekin orekatzeko premiarekin. Baliabide natural estrategikoetan aberatsak diren herrialdeek, hala nola teknologiarentzat kritikoak diren mineralek, balio-kate globaletan hobeto integratzeko aukera dute, baina mendekotasun ekonomikoaren eta ingurumen-degradazioaren arriskuei aurre egin behar diete. Gure enpresen eta enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna beste hirugarren eragile batzuen aurrean bultzatzeko, beharrezkoa da aurre egin behar dioten gehiegizko erregulazio konplexua murriztea.

Europako industria lehiakorrago bihurtuko duten faktore bereizgarri nagusietako bat jasangarritasuna da. Kanpoko lehiatik bereizteko elementua izango da. Ekodiseinua funtsezkoa da ekonomia zirkularrean. Hain zuzen ere, produktuen ingurumen-inpaktuaren %80 diseinu-fasean zehazten da. Beraz, ekodiseinua euskal industriaren lehiakortasun-faktore eta elementu bereizle gisa ulertu behar dugu. Zenbat eta iraunkorragoak, orduan eta lehiakorragoak. Horixe da "Clean Industrial Deal" europarraren espiritua. Jasangarritasunaren aldeko apustu horri esker, industria eta teknologia estrategikoen garapena sustatu ahal izango dugu Europan, oinarritzko lehengaiei aplikatutako ekonomia zirkularren arloko lan-esparru bat irekiz.

Kontsumitzen ditugun lehengaien %75 baino gehiago inportatzen ditugu. Soilik %11 erabiltzen da berriro. Hori txarra da planetarentzat eta gure lehiakortasunarentzat.

Euskadik erreferentzia-gune izan behar du Europan ekodiseinuaren eta ekonomia zirkularren arloan. Nazioarteko testuinguruak sor ditzakeen zalantzen aurrean, Euskadik eredu ekonomiko gero eta zirkularragoan sakontzen jarraitu behar du.

Bestalde, Europako berrikuntza-adierazleen panelak ("European Innovation Scoreboard 2024") herrialde "berritzaile sendoen" taldean kokatzen du Euskadi, Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik. Herrialde "oso berritzaileen" taldean gaude, Belgika, Austria, Irlanda, Luxenburgo, Frantzia edo Alemaniarekin batera. Zein herrialde daude berrikuntzaren ranking honen gailurrean? Suitza, Danimarka, Suedia, Finlandia edo Herbehereak. Gure erronka da herrialde horien mailara iristea.

6.2 Immigrazioa

Migrazio-fluxuak areagotu egiten ari dira gatazkengatik, krisi klimatikoengatik eta desparekotasun-egoera ekonomikoengatik. Migrazioak herrialde hartzaileetan ekonomia eta berrikuntza bultzatzen dituzkeen bitartean, integrazio sozial eta politikorako erronkak ere planteatzen ditu. Ekonomia aurreratu askotako desoreka demografikoei, biztanleriaren zahartzeak markatuta, immigrazioa iraunkortasun sozial eta ekonomikoaren eragile gisa aprobetxatzen duten politiken garrantzia azpimarratzen dute.

6.3 Jasangarritasuna

Klima-aldaketaren aurkako borroka lehentasun kritikoa izaten jarraitzen du. Karbono-isuri txikiko ekonomietara igartzeko, energia garbian, praktika jasangarrietan eta klima-aldaketaren eraginera egokitzeko inbertsioak egin behar dira. Azaleratzen ari diren teknologiek (hala nola datu-zentroek eta meatzaritza digitalak) energia eta baliabideak masiboki kontsumitzeak estandar zorrotzagoak eta soluzio zirkularrak behar dituztela nabarmentzen du, hala nola material digitalak berrerabiltzea eta birziklatzea.

Munduko tenperaturaren igoera industriaurreko garaiarekiko 1,5°C-ra mugatzeko eta klima-aldaketaren ondorio negatiboak murrizteko, Planetak berehala murriztu behar ditu berotegi-efektuko gasen isurketak. 2050erako neutraltasuna lortzeko, emisio txikiko ekonomia baterako trantsizioak energia garbian, praktika jasangarrietan eta klima-aldaketara egokitzeko neurrietan inbertsioak egitea eskatzen du. Trantsizio hori txukuntasunez egin behar dugu, gure indarguneetan sakonduz, inor atzean utzi gabe. Gero eta Herri erresilienteagoa izan nahi dugu, baina ezinbestekoa da garapen iraunkorra eta bidezkoa sustatzea.

Gorabidean dauden teknologiek (hala nola datu-zentroek eta meatzaritza digitalak) energia eta baliabideak masiboki kontsumitzeak estandar zorrotzagoak eta soluzio zirkularrak behar dituztela uzten du agerian, hala nola material digitalak berrerabiltzea eta birziklatzea.

Etorkizunean, muturreko fenomeno meteorologikoak gero eta ohikoagoak eta indartsuagoak izango dira. Funtsezkoa da programa aitzindariak garatzea uraren, airearen eta lurzorua zero kutsadura sustatzeko, giza osasunerako eta ingurumenerako maila egokiak bermatuz. Aurrera egin behar dugu natura-guneen eta erdinaturalen plangintzan, inbertsioak sustatuz lehengoratzeko ekologikoan, biodibertsitatearen defentsan edo habitatak lehengoratzean. Ur-hornidurako eta saneamenduko azpiegiturak osatzearen alde egin behar dugu, eta uholde-arriskua murrizteko defentsa- eta prebentzio-jardueretan aurrera egin behar dugu.

Gaur egun, eztabaida ofizialek ez dituzte aintzat hartzen eskualdeen ikuspegia eta ahotsa, nahiz eta tokiko administrazioarekin batera gobernuak, arintze-neurrien %70 eta Parisko Akordioko konpromisoetan aurrera egiteko egokitzapen-neurrien %90 betearazteaz arduratzen diren erakundeak izan. Euskadi izan zen larrialdi klimatikoa aitortu zuen lehena (Eusko Legebiltzarra), eta NBEk klima-anbizio handiena duen eskualdeetako bat izendatu gaitu. Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan abangoardia izatea nahi dugu.

6.4 Digitalizazioa

Datozen hamarkadetan, Euskadiko ekoizpen-sarea goitik behera aldatuko da. Baina ez gara hutsetik abiatzen, Euskadin informazioaren gizartea bultzatzeko estrategiak ibilbide luzea egin du eta eboluzionatzen joan da digitalizazio-aukerak txertatzeko eta, horrela, berrikuntza-palanka izateko eta ekoizpen-sektoreak modu disruptiboan eraldatzeko gaitasuna aprobetxatzeko, 4.0 industrializazio adimenduna lortzera begira.

Iraultza teknologikoak produktibitatea hobetzen du eta komunitate globalekin lotzen du. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da digitalizazioak sor ditzakeen desberdintasunei eta horrek dakarren segurtasun zibernetikoaren urrakortasunei aurre egitea. Funtsezkoak dira gobernantza globalaren eta estandarren beharra trantsizio digital inklusibo eta jasangarri baterako. Erronka nagusia izango da Euskadin gure ekonomia digitalizatzea eta teknologia berriak erabiltzea.

Euskal ekonomiarako funtsezkoak diren sektoreen eraginkortasuna hobetu behar dugu, bai eta burujabetza teknologiko nahikoa ziurtatu ere, Adimen Artifizialaren onurak euskatarren interesekin eta ongizatearekin lerrokatu ahal izateko. AAREN ezarpena eta erabilera bizkortu behar dugu, industrian modu etiko eta seguruan. Banda Zabal Ultralasterra ezartzearen alde egin behar dugu, 5Gren erabilera erraztu behar dugu enpresa-eremuan edo Data Centerrak martxan jartzea sustatu behar dugu, Euskadik subiranotasun handiagoa izan behar baitu datuaren kudeaketan. Hori guztia desberdintasun digitalak murrizteko helburuarekin.

6.5 Demografia

Mendebaldeko biztanleriaren zahartzeak talka egiten du munduko beste eskualde batzuetako gazte kopuruaren hazkundearekin. Desoreka horrek erronkak sortzen dizkigu belaunaldi-transferentzietan, pentsio-sistemen iraunkortasunari eta gizarte-zerbitzuen egokitzapenari dagokienez. Aldi berean, dinamika demografikoak aukerak ematen ditu politikak berrantolatze eta bidezko garapena sustatzeko. Erronka global horiek elkarri lotuta daude, eta ikuspegi anitzak eta integratuak eskatzen dituzte, politika ekonomiko, sozial eta teknologikoak konbinatzen dituztenak, gizarte erresiliente, inklusibo eta iraunkorrak eraikitzeko.

5.- EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN ESTRATEGIAREN SOSTENGU DIREN OINARRI ETA PRINTZIBIOAK

Euzko Alderdi Jeltzalean uste osoa dugu nazioartean egiten dugunak Euskadin defendatzen ditugun balioen isla izan behar duela: demokrazia, justizia soziala, giza eskubideak eta identitateen errespetua. Euskal errealitate nazionalarekin eta autodeterminazioarekin dugun konpromisoak gidatzen gaitu nazioarteko plazan ematen dugun urrats bakoitzean. Gure ustez, Euskadik eskubidea du beste estatu batzuekin baldintza berdinetan nazio gisa onartua izateko, eta, batez ere, gure erakundeek Espainiarekin eta Frantziarekin aldebiko harreman osoak izan ditzaten egiten dugu lan. Ahalegin horrek eskumenak zabaltzea eta garatzea dakar, dela Gernikako Estatutua, NFEBHLO edo Frantziako deszentralizazio-legeak osorik betez, dela gure errealitatea eta nahiak islatzen dituzten akordio berrien bidez.

Ikuspegi humanista sakona dugu eragile nagusi, non garapen ekonomikoa, elkartasuna eta justizia soziala zutabe baitira gizarte oparo eta ekitatiboa eraikitzeko bidean. Askatasun indibiduala eta parte-hartze demokratikoa funtsezko printzipioak dira politika ulertzeko dugun moduan, eta balio horiek Euskadin defendatzeaz gain, Europako eta nazioarteko testuingurura ere eramaten ditugu. Esparru horretan, Europar Batasunaren klima-helburuekin bat datorren ekonomia jasangarriaren eta digitalizazioaren aldeko apustua nabarmentzen dugu, aurrerapen-eragile gisa. Lehentasun horien

helburua ez da soilik Euskadiren lehiakortasuna bermatzea, baita guztiontzako etorkizun bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzen laguntzea ere.

Alderdi gisa, Europako erakundeetan dugun ahotsa estaturik gabeko nazioen protagonismoa indartzearen zerbitzura dago, Euskadi bezala, gure interes ekonomikoak eta kulturalak, gure identitateari dagozkionak, defendatuz. Arlo horretan, uste dugu bakea ezinbestekoa dela aurrera egiteko. Horregatik, gatazkak konpontzeko bide demokratiko hutsen alde egiten dugu beti, edozein indarkeria mota baztertuz eta elkarrizketa desberdintasunak konpontzeko funtsezko tresna gisa lehenetsiz. Jarrera horrek gure printzipioekin koherenteak diren nazioarteko harremanak eraikitzea garamatza, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten edo oinarrizko askatasunen aurka doazen erregimenekin aliantzak saihestuz.

Elkartasuna adierazten diegu beren aitortza eta nortasunarekiko errespetua bilatzen duten nazio eta herriei, eta justizia eta askatasunaren aldeko ahalegin baketsuak indartuko dituzten aliantzak ehuntzeko lan egiten dugu. Erkidegoek beren patuari buruz erabakitzeko duten eskubidearen alde gaude. Gure ustez, autodeterminazioa eskubide besterenezina da, eta bakearen eta elkarrekiko errespetuaren esparruan babestu eta sustatu behar da.

Azken batean, bakean, justizia sozialean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako nazioarteko ordenarekin konprometitutako Euskadi proiektatu nahi dugu. Gure nazioarteko ekintzak mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzea du helburu, non balio demokratikoak gailenduko diren eta herrien identitateak eta nahiak errespetatuko diren. Horrela, Euskadi esparru globalean lankidetzeta eta errespetu-erreferente bihurtzeko asmoan aurrera egiten dugu, guztion aurrerapenari lagunduz, gure printzipioei eta nortasunari inoiz uko egin gabe.

6.- EUZKO ALDERDI JELTALEAK JARRAITU BEHARREKO HELBURU ETA EKINTZA ESTRATEGIKOAK ZEHAZTEA

Mundu mailako gatazken gorakadaren aurrean, mundu mailako lehiakortasunaren galera ikusirik eta demokraziaren eta bakearen funtsezko balioak indartu eta defendatzeko beharra ematen den egoera honetan, duela urte batzuetatik hona aipatu ditugun trantsizioak betebeharrak bihurtu direla uste dugu.

Nazio Batuen 2030 Agenda eta lehiakortasun energetikoaren eta teknologiko-digitalaren kontzeptuak funtsezkoak dira, gizarte gisa, gure garapen sozioekonomikoaren eredua modernitatean, erresilientzian, diplomazian eta, oro har, aukerak sortzean erreferente izango den eszenatoki baterantz aurrera egin dezagun, segurtasuna, egonkortasuna eta bizi-kalitatearen eta zorientasunaren estandar altuak hornitzeko gai izango dena.

Industria izan da Europako gihar ekonomikoa Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, eta kontinentearen estrategia edo sendotasun industrialak lurralde batzuetako aukera industrialen inguruan garatu da. Gaur egun, tradizioz industriaren mende ez zeuden lurralde berriak indarrez sortu dira. Txinaren eta Estatu Batuen lehiari aurre egiteko EBren berrindustrializazio-prozesuan, Arku Mediterraneoaren zein Ekialdearen beren posizio propioa bilatzen saiatzen ari dira. Euskadik garrantzi berezia izan du bai Europako industria-historian, bai Europako balioen defentsa historikoan. Hau da,

Arku Atlantikoak bultzada bat izan behar du bere indar eta garrantziaren arabera, Euskadi erabakiguneetan koka dadin.

Azpiegiturak, askotariko dimentsioetan eta nazioarteko posizionamendu geopolitikoan, elementu kritikoak izango dira, eta eragin zuzena izango dute pertsonen lehiakortasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko. Azpiegitura fisikoetan (errepideak, portuak eta aireportuak) eta interkonektatutako sare elektriko eta digitaletan inbertitu beharko da. Euskadik oso adi egon beharko du azpiegitura horiei eta horien bilakaerari zuzenean eragingo dieten etorkizuneko estrategiekin, garapen estrategikoetatik kanpo ez geratzeko.

A) HELBURUAK

1. Energia-lehiakortasuna

Industriak gure ekonomian duen garrantziak gure inguruko beste herrialde batzuek dutena baino *per capita* energia-kontsumo handiagoa dakar. Gure energia-hornidura maila %10etik beherakoa da, eta horrek energiaren inportazio masiboa dakar, hala nola petrolioarena, gasarena eta elektrizitatearena.

Kontsumitzen dugun petrolioaren prezioa mundu mailan erabakitzen da; gasaren prezioa, berriz, Europa mailan erabakitzen da, eta elektrizitatearen prezioak Estatuko logika bati jarraitzen dio. Gure industriak energia horiengatik ordaintzen duen prezio erlatiboak daukagun lehiakortasun-mailan du eragina.

Baliabide natural gutxiko lurraldea garenez, gure autohornikuntza-mailak handitzeko modu bakarra da elektrizitate berriztagarri propioa sortzea. Hala ere, elektrizitate berriztagarri propioa, fotovoltaikoa zein eolikoa, ezin da lehiatu eguzki-baliabide edo haize-baliabide handiagoa ematen den Estatuko beste eremu batzuekin. Espainiako Estatuko elektrizitatearen prezioa Europako txikienetakoa da, parke eoliko eta fotovoltaiko handiei esker.

Era berean, herrialde gisa gure isurpen maila murriztu behar dugu, eta jatorri berriztagarria duen elektrifikazioa da elektrizitatearen sorkuntza deskarbonizatze modurik eraginkorrenetako bat. Elektrizitate berriztagarria merkeago eskuratzea lehiakortasun-eragile bat da, gure industriak eskura duena.

Gure industria-ehuna garatzeko, Euskadira erakarri behar ditugun industria berri asko elektro-intentsiboak dira. Horren adierazle nagusia adimen artifizialari lotutako datu-zentroak dira. Une honetan, inbertsio horiek erakartzeko dugun trebetasuna mugatua da, Euskadin ez baitago potentzia elektrikorik. Sare elektrikoaren azpiegitura falta hori estaltzeko ahalegina egin beharko litzateke. Potentzia berriaren plangintza bost urteko zikloetan egiten da, eta inbertsio-muga batzuen mende dago estatu mailan. Gure egungo industria deskarbonatzea eta industria-inbertsio berriak erakartzea eragozten duen botila-lepoa da.

Egoera horren aurrean, ondorengo gomendioak proposatzen ditugu:

- Sorkuntza berriztagarri propioan inbertitzea, gure autohornikuntza eta subiranotasun energetikoa %15era arte handitzeko. Eta, horrekin batera, klima-aldaketa mugatzen laguntzea.
- Norberaren sorkuntza berriztagarria autokontsumorako eta geografia osoan zehar banatutako tokiko kontsumorako instalazio txikietara bideratzea.
- Instalazio eoliko eta fotovoltaiko handiak oso puntu espezifikoetara eta haize- edo eguzki-baliabide askoko eremuetara mugatzea, ingurumen-inpaktu baxura, toki mailako garraio-azpiegituretarako sarbidera eta gizarte-onarpenera.
- Gure industria gehiago elektrifikatzea, deskarbonizazio eta lehiakortasunerako eragile den aldetik.
- Ahal den neurrian elektrizitatearen garraio- eta banaketa-sarean inbertitzea, gure industriaren eskari elektriko handienari aurre egin ahal izateko.
- Garraio- eta banaketa-sarea planifikatzeko eta inbertitzeko autonomia lortzea, gure beharretara arinago egokitzeko.

2. Lehiakortasun teknologiko-digitala

Uste dugu hauxe izan daitekeela eta izan behar duela lehiakortasunari egingo diogun ekarpen handienetako bat, tokikotik globalera.

Europar ez gaude ondo kokatuta, urte hauetan ez baitugu inbertsiorik egin AEBekin edo Txinarekin alderatuta Adimen Artifiziala bezalako teknologia estrategikoetan, baina Euskadik bere diferentziala eta potentziala aprobetxatu behar du, berrikuntzaren arloko rankingek edo DESI indizeak berak (Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea) agerian uzten dutenez.

Ingurumena babestea, energia-lehiakortasuna, jasangarritasuna eta deskarbonizazioa, gure industriak indartzea, zerbitzu aurreratuak sortzea edo osasun- eta ongizate-adierazleak hobetzea, neurri handi batean, beren prozesuetan sustatzaile-teknologiaren bidez txertatzeko gai diren aurrerapen teknologikoen bidez bultzatuko dira.

Esparru teknologikoa, zalantzarik gabe, funtsezko gunea da lankidetzaren publiko-pribatuaren funtsa indartzeko, eta ardatz nagusia izan behar du elkarlanerako modu berriei dagokienez. Datuak partekatzea, betiere erabilera etikoa eta datu pertsonalen babesa bermatuz, eta teknologia disruptiboak erabiltzeko eta gizartea gaitzeko eta ahalduntzeko anbizio handiko estrategia batekin batera, gure balio bereizgarri eta erantsi handia izan daiteke. Euskadik eta bertako jendeak beti jakin izan dute aldaketetara egokitzen, eta oraingoan ere jakingo dugu hori egiten, gure nortasuna eta izaera indartuta atera daitezen, eta, gainera, erreferentziazko eredu izan daitezen Europa mailan, garapen ekonomiko-ingurumeneko-sozialeko ereduagatik. Euskadik ahalegin handiak egin ditu nazioartekotzeko, lehiakortasunaren palanka bihurtzeko. Ondorengoetan, teknologia izango dugu aliatu:

- Demokrazia eta balioak indartzea, fake news delakoen eta desinformazioaren aurka borrokatzea.
- Berrikuntza eta hazkunde ekonomikoa bizkortzea.
- Burokrazia murriztea.
- Erresilientzia energetikoa eta planetaren iraunkortasuna indartzea.
- Gure industrien eta lehen sektorearen lehiakortasuna hobetzea.
- Pertsonen gaitasunak handitzea.
- Mundu inklusiboagoa egitea eta inor atzean ez uztea.
- Era holistikoa ingurune seguruagoak sortzea.

Teknologiaren erabilera, etiko, arduratsu eta eredugarri bat, zalantzarik gabe, mundu hobea, jasagarri eta baketsu bati egiten diogun ekarpenaren parte izango da.

Teknologia eragile estrategiko gisa ikusten dugu, segurtasuna holistikaren ikuspegitik indartzeko. Gaur egun, segurtasunaren kontzeptua segurtasun fisiko edo militarretik haratago doa. Kontzeptu hibrido askoz konplexuagoaz ari gara, mundu digitala barne hartzen duena eta energia edo elikadura bezalako eremu estrategiko eta funtsezkoetan segurtasunari zuzenean eragiten diona. Ildo horretan, estrategikoa izango da Adimen Artifizialarekin, Quantumarekin eta beste teknologia disruptibo batzuekin, zerbitzu eta merkatu digitalekin, fiskalitatearekin, azpiegitura digitalekin eta proiektu mota horiek finantzatzeko eta bizkortzeko programekin lotutako joera, araudi eta estrategien jarraipena egitea. Eta, are garrantzitsuagoa dena, ausartak izan behar dugu proiektuetan inplementatzeko edo saiartzeko orduan.

Euskadin ekosistema indartsua dugu zibersegurtasunari dagokionez, eta, beraz, mehatxuei aurre egin behar diegu ekosistema horren tresnak erabiliz, hala nola Cyberzaintza, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia. Ausartak izan behar dugu horiek inplementatzeko edo proiektuetan tresnak probatzeko. Era berean, ezinbesteko ikusten dugu Euskadin soluzio teknologiko-energetikoak garatzea, euskal sektore energetikoaren lehiakortasunari eusten lagunduko diotenak, funtsezkoa baita sortzen dituen enplegu zuzen eta zeharkakoen kopuruagatik, bai eta BPGri egiten dion ekarpenagatik eta zerga-bilketagatik ere. Gure ustez, zibersegurtasunaren eremuan bezala, teknologiko energetikoan ere, irtenbide eta eredu erreferentzialak eta mundura esportagarriak garatzeko behar besteko zumeak ditugu.

3. Lehiakortasun sozial-globala eta balio demokratikoak eta bakezkoak sustatzen dituen gizartea

Aurreko ataletan deskribatu diren ezaugarri globalak ikusita, eta lehiakortasun energetiko eta digitalerantz egin behar dugun ibilbide-orrria ikusita, ezin dugu ahaztu Euskadik beti aurrera egiteko eta garaian garaikoari moldatzeko aukera izan duela, unean uneko premien arabera eboluzionatuz; gure gizarteaz harro gaudela, non komunitatearen, guztion ongiaren, elkartasunaren, erresilientziaren, ahaleginaren eta konpromisoaren balio partekatuak gure esentziaren eta nortasunaren parte izan diren. Hori esanda, egia da balioak eta lehentasunak aldatzeko joera dagoela, eta, horren ondorioz, oso adi egon behar dugu gizartea alde batera edo bestera mugiarazten duten nazioarteko joerekin.

Gaur egungo garaiek belaunaldien arteko eta mundu mailako ikuspegiaren eta egoeren arteko are lotura handiagoa eskatzen dute. Balio demokratikoak eta bakea sustatu behar ditugu, belaunaldien arteko beste balio global batzuekin batera, non planeta zaintzea, berdintasuna zentzu zabalenean, aisialdirako eta atsedenerako eskubidea edo gure adinekoren zaintza elkarren kontra egongo ez diren.

Euskadin, Europan bezala, biztanleria zahartua dugu, jaiotza-tasa oso baxuak ditugu eta laguntza-premiak ditugu hainbat sektoretan, hala nola zaintzan edo belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko gai ez garen beste sektore batzuetan. Profesional onenak behar ditugu etorkizuneko sektore estrategikoetan, talentuaren beharrezko aniztasunari erantzuteko.

Egoera honetan, migrazioaren fenomenoak funtsezko eta beharrezko elementu jotzen dugu; hala ere, ukazina ere bada ezegonkortasun globalak, mundu osoan ematen ari diren gatazken gorakadak edo demokraziaren narriak eta munduko beste lurraldeetan Giza Eskubideak urratu izanak eragin egin dutela gaur egun, eta maizegi, migrazioaren fenomeno hori gerra hibridorako eta Europako zein Euskadiko elkarbizitza eta baloreak desegonkortzeko elementu gisa erabiltzea.

Errealitate horrek behartu egiten gaitu migrazio-mugimendu mota desberdinak eta horiei aurre egiteko modu desberdinak objektibotasunez eta eragozpenik gabe aztertzea, gure gizarte-balioak errespetatuz Euskadin etorkizuneko proiektu bat aurki dezaketen pertsona guztien gizarteratzea eta laneratzea erraztuz, eta, aldi berean, euskal gizartea eta Euskadiko bizikidetzak pobretzea edo ezegonkortzea helburu bakarra duten pertsona guztiei marra gorri bat eta osasun-lerro bat jarritz.

Migratzaileen potentzial osoaren aktibazioa eta aprobetxamendua bultzatu eta erraztu behar dugu, horietako asko gehiegi kualifikatuta baitaude, beren titulazioak baliozkotu ahal izan ditzaten eta Herri honen eraikuntzaren parte izan daitezkeen beren eskubide guztiekin. Haiekin iristen diren senideen integrazioa errazteko lan egingo dugu.

Migrazioa integratzeko eta kudeatzeko hainbat eredu daude, eta muturreko mugimenduen hazkundeak nolabaiteko gizatasunik gabeko proposamen berriak sorrarazten ditu. Euskadik gai izan behar du bere eredu tradizionala egungo behar eta errealitateetara egokitze, Europako erreferente izaten jarrai dadin.

Mundu mailako gatazka ugari dagokienez, euskal gizarteak bake-balioak sustatzeko jarrera argia erakutsi du historikoki. Beraz, presentzia dugun nazioarteko espazio guztiak baliatuko ditugu euskal ahotsa haletara eramateko, eta bake prozesuak, elkarriketak, gatazka konpontzeko bide diplomatikoak eta, batez ere, giza eskubideak errespetatzeko bideak sustatzeko. Hori esanda, euskal gizarte honek berak askotan erakutsi du gaitzetsi egiten dituela botere abusuzko eraso eta portaerak eta Giza Eskubideen urraketak, eta horien kontra jardun nahi duela, aurreko lehenetan aipatutakoaren aurka doazenean, eta prest dagoela horri aurre egiteko.

B) PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

1. Makroeskualde Atlantikoa sortzea eta Arku Atlantikoa eta Euroeskualdea bultzatzea

Berregituraketa geopolitikoak, lehiakortasun-erronkek eta demokraziaren eta bakearen funtsezko balioak defendatzeko beharrak baldintzatutako testuinguru globalean, Euskadik Arku Atlantikoa Europan erreferentzia estrategiko gisa kokatzeko funtsezko ekimenak gidatzeko ahalmena du.

Akitania-EAE-Nafarroa Euroeskualdeak (AECT), maila anitzeko lankidetzarako tresna politiko gisa finkatzen da, eta esparru ezin hobea eskaintzen du kultura, ekonomia, azpiegitura eta ingurumen arloetan politika bateratuak antolatzeko.

AECT-Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea 2011ko abenduaren 12an sortu zen Lurralde Lankidetzako Europako Taldea da, mugaz gaindiko eta euroeskualdeko lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzea eta, aldi berean, lurralde horren barruko trukeak sustatzea helburu duena.

Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Nafarroa, euroeskualde bat, bi estatu, hiru lan-hizkuntza: euskara, gaztelania eta frantsesa. Eleaniztasuna, non denak komunikatzen, partekatzen, ikasten eta konektatzen diren.

Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Nafarroa, ikuspegi bat, espiritu bat, irrika bat: euroeskualdea hurbiltasuna eta urruntasuna uztartuko dituen lurralde bihurtzea, biztanleen eguneroko bizitza errazteko toki- eta eskualde-mailan, haien bizi-baldintzak hobetzen lagunduz hemen, orain eta etorkizunean.

Lotura horietatik haratago, EAJ-PNVk euskal lurralde guztien, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Iparraldeko Elkargoaren arteko lankidetzaren indartzea proposatzen du, "Zazpiak Bat" ideala sendotzeko. Eta, horrela, nazio gisa aitortuak izateko eta Europan presentzia indartzeko bidean aurrera egitea lortuko dugu.

Hala ere, beste urrats bat emateko unea da.

Makroeskualde atlantiko bat sortzea funtsezko pieza da garapen jasangarri, lehiakor eta konektatu bat bermatzeko, non lankidetzak hainbat estatu kide hartuko lituzkeen, hala nola Frantzia, Espainia (Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskadi), Irlanda eta Portugal. Esparru ekonomikotik haratago, bultzatu beharreko eta lankidetzan aritzeko beste arlo batzuk hartu behar dira kontuan, hala nola hezkuntza, kalitatezko etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza, turismo jasangarria, gobernantza, kultura-trukeak, ekonomia urdina eta enplegua.

Makroeskualdeei dagokienez, Arku Atlantikoak erronkak ditu Mediterraneoaren eta Europako ekialdearen aurrean. Portugal, Espainia, Frantzia eta Irlanda bezalako eskualde eta estatuak osatutako Makroeskualde Atlantikoa sortzea aukera paregabea da Fatxada Atlantikoko lurralde- eta ekonomia-kohesioa indartzeko. Euskadik, bere industria-ibilbidearekin eta jasangarritasunarekin eta berrikuntzarekin duen konpromiso irmoarekin, estrategia hori maila anitzeko gobernantzaren

ikuspegitik gidatzeko hautua egiten du, Estaturik gabeko nazioen parte-hartzea eta proiektu eraldatzaileen inplementazioa ziurtatuz.

Ekimen horien garapena garraioan, energian eta digitalizazioan mugaz gaindiko loturak indartzean oinarritu behar da. Euskadik 2030erako amaitu behar ditu Atlantikoko korridorean abiadura handiko trenaren obrak, haren lehiakortasuna eta konektibitatea bermatzeko. Aldi berean, ezinbestekoa da hidrogenoaren korridorea bultzatzea trantsizio energetikoaren eta jasangarritasunaren aldeko apustu irmo gisa, Pirinio Atlantikoen bidezko komunikazio-sarea indartuz eta Euskadi energia garbien ekoizpenean erreferente gisa kokatuz. Gainera, mugikortasunaren digitalizazio integrala eta Euskadi Arku Atlantikoko komunikazio-nodo gisa sendotzea funtsezkoak izango dira talentua erakartzeko, berrikuntza sortzeko eta garapen ekonomikoa indartuko duen zerga-sistema lehiakorra ezartzeko.

Europako funtsen esparruan, Euskadi subjektu politiko independente gisa aitortzeak aukera emango luke eskualde-garapenerako baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzeko, Espainiako eta Frantziako estatuen mendekotasunak ezarritako mugak gaindituz. Kohesio-funtsen eta berreskuratzeko-planen zuzeneko kudeaketak hazkunde ekonomikoari laguntzeaz gain, Euskadik herritarren bizi-kalitatearen alde lan egiten jarraitzeko politikak ezartzeko duen gaitasuna indartuko luke.

Eremu geopolitikoan, fokua gaur egun ekialderantz eta Mediterraneorantz lekualdatzeak indartu egiten du Makroeskualde Atlantikoa sendotzeko premia. Lurralde honen kokapen geografikoak kokapen pribilegiatu batean uzten gaitu, Brexitaren ondoren Erresuma Batuekiko harremanak gidatzeko. Proiektu horri esker, eskualde atlantikoek ahaleginak koordinatuko dituzte berrikuntzan, digitalizazioan, trantsizio energetikoan eta konektibitatean, eta ordezkariak aktiboa bermatuko dute nazioarteko erabaki-foroetan. Euskadi, Arku Atlantikoaren eragile industrial eta kulturala den aldetik, Europan modernitatearen, erresilientziaren eta diplomaziaren erreferente bihurtzeko estrategia horren buru izango da, nazioarteko testuinguruan duen zeregina indartuz eta Europar Batasunaren barruan Estatu oso gisa aitortzeko bidean aurrera eginez.

2. Ahalmen diplomatiko guztia aprobetxatzea

Euskadiren diplomazia kulturala eta ekonomikoa munduari irekita dagoen eta gure garaiko erronkei modu aktiboan laguntzeko gai den herrialde baten aldeko apustu sendoa da. EAJ-PNVk uste du euskal nortasunak eta balioek presentzia izan behar dutela nazioartean, lankidetzan, garapen iraunkorra eta Giza Eskubideen errespetua bezalako alderdiak nabarmenduz. Testuinguru horretan, Euskadik ulertzen du mundu interkonektatu batean bizi dela, non erronka globalek – jasangarritasunetik hasi eta eraldaketa digitaleraino eta gizarteratzeraino – erantzun koordinatuak eta nazioarteko lankidetzan behar dituzten.

Funtsezkoa da Euskadik Europan duen posizionamendua eta rol aktiboa bultzatzea, bai eta lehiakortasunari eta ongizateari lotutako gaietan lehentasuna duten herrialdeetan abangoardiako nodo eta sareekin duen lotura ere. Gainera, lurraldeko eragile guztien nazioartekotzea bultzatzea funtsezkoa da euskal enpresak hazten ari diren eta hazteko ahalmen handia duten herrialdeetan duen posizioa indartzeko. Gure nortasun-ezaugarrietako bat da balio partekatua sortzeko estrategiak

aplikatzea, lehiakortasunaren euskal ereduarekin bat datozenak. Lurraldeko eragileen nazioartekotzea I+G+B sistemako eragileena ere bada.

Hala eta guztiz ere, Euskadik ekarpen handia egin behar du alor horietan, eta sendotu egin behar du, mundu osoko beste lurralde, erakunde eta eragile batzuekiko lotura estrategikoen bidez. Horregatik, EAJ-PNVtik defendatuko dugu Euskadik ahots propioa izatea gure nazioari eragiten dioten erabakiak hartzen diren nazioarteko foro guztietan.

EAJ-PNVk Euskadiko diplomaziarako duen ikuspegiak, foro alderdianitzetan ordezkari-tza diplomatikoa izateaz gain, gure balioen proiektzioa hobetzeko eta euskal gizartearentzat aukera berriak sortzeko sareak eta aliantzak sortzea ere eskatzen du. Horren barruan sartzen dira bai Euskadik Europan eta nazioarteko beste testuinguru batzuetan dituen interesen defentsa, bai gure ekonomiarako eta kulturarako aukera estrategikoak dauden eskualdeekiko harremanak sendotzea. Gainera, errespetuan eta lankidetzan oinarritutako kanpo-politika sustatu nahi dugu, Euskadiko kultura-sarea eta sare ekonomikoa indartzeko.

Helburu horiek lortzeko, ondorengo neurri hauek proposatzen ditugu:

- Makroeskualde Atlantikoaren sorrera bultzatzea Europar Batasunaren barruan, Euskadik ahots propioa izango duen eta garraioari, ekonomia berdeari eta klima-aldaketari buruzko erabakietan parte hartzeko aukera emango dion lankidetzaren bat sortzeko helburuarekin.
- Euskadiren eta erakunde alderdianitzen eta Nazio Batuen erakundearen arteko harremanak sendotzea, giza eskubideen, iraunkortasunaren eta garapenaren arloko lankidetzaren sustatuz, euskal kanpo-politika sendo baten oinarri gisa.
- EAJ-PNVren eta Afrikako eta Asiako hego-ekialdeko lurralde estrategikoen arteko harreman berriak ezartzea, bi aldeei mesede egiten dieten ekonomia- eta kultura-esparruetan lankidetzaren aritzeko potentziala aprobetxatuz.
- Euskal enpresei nazioartekotze-prozesuan lagunduko dien eta sektore estrategikoetan inbertsioak erakartzea erraztuko duen diplomazia ekonomikoa sustatzea, horrela Euskadiko produkzio-sarea sendotuz.
- Euskal kultura nazioartean babestea eta zabaltzea, euskal sortzaile eta artistek beren lana hainbat testuinguru globaletan erakusteko aukera izan dezaten ahalbidetuz, eta, horrela, gure kultura-nortasunaren aintzatespena sustatuz.
- Euskadik Europako lankidetzaren foro eta -sareetan duen parte-hartzea indartzea, gure Herria funtsezko eragile gisa kokatuz industrializazio teknologikoko, jasangarritasuneko, eskubide digitaletako eta ekonomia zirkularreko ekimenetan.
- Euskadiko erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak maila globaleko ezagutza- eta garapen-sareetan sar daitezten sustatzea, EAEko eta EAEko ikasleek eta ikertzaileek bikaintasun-inguruneetan sartzeko eta Euskadiren potentzial berritzailea indartzeko aukerak sortuz.

3. Euskal Diaspora eragile aktibo gisa Euskadiren etorkizuneko garapenean

Euskadiren egungo testuinguruan, erronka konplexu eta esanguratsuei egin behar diegu aurre, gure diasporak kanpotik eskain diezagukeen ikuspegia barne hartzen duen begirada zabala eskatzen dutenak. EAJ-PNVn aitortzen dugu Euskal Diaspora funtsezko indarra dela, baina sarritan gutxi aprobetxatua, gaur egungo ikuspegi tradizionaletik eta instituzionaletik haratago doan nazioarteko ikuspegia emateko gai baita. Gure ustez, mundu globalizatu honetan, diasporak gure gizartea aberasteko ahalmena du, ikuspegi globalago batekin eta lurralde-ñabardura propioekin, bai eta migrazio- eta ekonomia-errealitate berrien ezagutza espezifikoa batekin ere.

Euskal Diasporak Euskadirenganako kidesun sentimendu handia duten pertsona eta komunitateak hartzen ditu bere baitan, atzerrian bizi diren pertsona atzerriratuetatik hasi eta diaspora tradizionaletik bigarren eta hirugarren belaunaldiko migratzaileetaraino. EAJ-PNVn, diaspora honek gure herriaren garapenean duen rol aktiboa birdefinitzeko konpromisoa hartzen dugu, gure politikak eta programak egokitzuz bere potentziala maximizatzeko eta bere behar espezifikoak erantzuteko, aldi berean diaspora hau gaur egun Euskadin bizi ditugun erronkei aurre egiteko palanka izan dadin.

Euskal Diasporarekin dugun harremanean paradigma aldaketa baterantz aurrera egiteko unea da. Gaur egungo eredia gainditzea proposatzen dugu, Euskal Etxeak topagune gisa hartuta, eta gure diasporak Euskadiren etorkizuneko garapenean eragile aktibo gisa duen potentziala aintzat hartuko duen ikuspegira pasatzea. Aldaketa hori diasporak bere geografietan eragina sortzeko, irtenbide berritzaileak identifikatzeko, garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko eta nazioarteko beste testuinguru batzuetan duen esperientzian oinarritu behar da, bereziki erronka demografikoa, migrazio-krisiak eta egungo joera ekonomiko berriak bezalako gai kritikoetan. Azken batean, Euskal Diaspora nazioarteko euskal lobbyaren oinarri gisa.

Euskadiko migrazio-esperientzia funtsezko ikaskuntza-iturria da. Talentua erakartzetik hasi eta eskulan kualifikatua kudeatzeraino, migratzaileak gizarteratzeko politiketatik igaroz. Gure migrazio-historiak gaur egungo erronkei aurre egiteko ikasgai baliotsuak eskaintzen dituela uste dugu. Ikuspegi horrek aukera emango digu egungo arazoei enpatia- eta ezagutza-posizio batetik heltzeko, diaspora gure ekonomiaren eta gizartearen funtsezko sektoreetan integratzea sustatuz.

Horretarako, aitortzen dugu gaur egun desberdintasunak daudela kanpoko euskal komunitate historikoaren, bere ondorengoaren eta migratzaileen belaunaldi berrien artean. Beraz, gure politikak eta programak egokitzeko ditugu bi taldeen behar espezifikoak erantzuteko. Gure egitekoa da haien inklusioa eta parte-hartzea sustatzea, diasporako sektore bakoitzak Euskadiren etorkizunari modu aktiboan laguntzeko aukerak aurkituko dituela ziurtatuz.

Ekonomia Ituna eta Ekonomia Hitzarmena, gure autogobernurako tresnarik jatorrenak eta garrantzitsuenak diren aldetik, beren balioa aitortu behar zaie, eta haien potentziala ahalik eta gehien garatu behar da, baita Euskadin proiektu ekonomiko eraldatzaileak garatzeko atzerriko inbertsioa erakartzeko gaitasunari dagokionez ere. Migratzaileen herrialdea izan ginen eta Euskal Diaspora sustraituta dagoen herrialdeekiko loturak aprobetxatu behar ditugu.

Horrekin guztiarekin, EAJ-PNVk honako jarduera hauek bultzatuko ditu:

1. Ekonomian, gizartean, politikan eta arlo akademikoan garrantzitsuak diren euskaldunak identifikatzea, nazioarteko euskal lobby-a eragin globaleko eragile gisa osatzeko.
2. Euskal Etxeen sarea eta espazio digital berriak sendotzea: Euskal Etxeak erreferentziazko zentro eta harreman ekonomiko, kultural eta gastronomikoko gune gisa indartzea aurrez definitutako diasporako kideen artean, eta plataforma digitalekin osatzea, Euskadirentzat estrategikoak diren gaietan diasporaren interakzioa eta parte-hartzea erraztuko dutenak, belaunaldi berrietan arreta berezia jarritz.
3. Talentua Erakartzeko Programak: programa espezifikokoak ezartzea diasporako profesional kualifikatuak erakartzeko, Euskadin funtsezkoak diren proiektuetan parte hartzeko edo itzultzeko pizgarri eta erraztasunekin, bai eta euskal industriaren beharrak asetzeko ere, talentua erakartzeko egungo tresna fiskalak eta inpatriatuak erabiliz. Arreta berezia eman beharko litzaioke modu iraunkorrean hemen bizi ez arren, Euskadin lan egiten duten ez-egoiliarren zuzeneko zergapetzeari, horixe baita atzerriko inbertitzaileen ohiko jarduteko modua.
4. Euskadira atzerriko inbertsioa erakartzeko programak eta mekanismoak: diaspora garrantzitsua duten beste herrialde batzuen antzera, Irlandako ereduari jarraituz (atzerriko inbertsioaren %75 diasporari lotuta dago), aliantza eta mekanismo proaktiboak sortuko lirateke euskal jatorriko enpresekin, enpresariekin eta enpresaburuekin, herrialdeari inbertsioak erakartzea sustatzeko.
5. Euskal enpresa nazioartekotzeko prozesuak bultzatzea eta laguntzea: euskal jatorriko enpresarien eta euskal enpresen artean aliantzak edo "joint venture" izenekoak sortzeko mekanismoak garatzea, kanpoko euskal bulegoen sarea optimizatuz, eta EAEko profesionalak, eta zuzendariak atzerriko enpresa eta multinazionalaletan kokatzea.
6. Herritarrek parte hartzeko ekimenak: diasporak kontsulta- eta erabaki-prozesuetan parte hartzeko mekanismoak garatzea, Euskadiren etorkizunerako garrantzitsuak diren gaietan ahotsa zabalduz, eta, gure inguruko beste herrialde batzuen antzera (Italia, Portugal, Frantzia...), Eusko Legebiltzarrean zuzenean bozkatzeko sistemak ebaluatzea.
7. Euskal nortasuna sustatzea: euskal kultura eta nortasuna diasporan transmititzen laguntzea, truke-programen, kultura-jardueren eta Euskadiri eta haren ondareari buruzko hezkuntza-baliabideetarako sarbidearen bidez.

7.- ONDORIOAK

Txostenaren abiapuntua da egiaztatzea guztiz ezinbesteko dugula Europar Batasunaren parte izatea; zer garen, non gauden, gure proiektu estrategikoak zein diren, marra gorriak non jartzen ditugun eta nora eta norekin joan nahi dugun. Euskadik lehiakortasunaren eta gizarte-ongizatearen arloko erronka globalak partekatzen ditu beste eskualde, nazio eta estatu batzuekin, baina horiei ahots propioz heltzeko bokazioarekin eta borondatearekin, nazioarteko ekintza politikoko estrategia baten bidez.

Ekintza horren lehen ardatza izango da eta izan behar da Europa federal baten alde egitea, errealitate desberdinak (gizabanakoa, udalerrria, nazioa eta estatua) aintzat hartuz eta subsidiarotasun-

printzipioa errespetatuz eraikiko dena. Bigarrenik, gure Herriari aitortza eman behar zaio, Europa federal horren barruan berezko espazio politiko bat dagokion Nazio gisa, non, berdintasunean, federazioko gainerako kideekin subiranotasuna bateratu eta partekatuko duen.

Gaur egun paradigma-aldaketa baten aurrean gaude, ezegonkortasun eta ziurgabetasun handiagoarekin nazioartean, demokrazia eta giza eskubideak kolokan jartzen dituzten populismoekin, gerra hibridoaren mehatxuarekin eta desinformazioarekin eta lehiakortasunaren galerarekin. Beste erronka batzuk ere baditugu: Errusiak Ukrainaren aurka egindako eraso-gerra, Ekialde Hurbilean eta Afrikako herrialde batzuetan gero eta ezegonkortasun handiagoa, Estatu Batuekin izan dezakeen merkataritza-gerra, Txinaren industria-nagusitasuna edo Europar Batasunaren zabaltzea.

Testuinguru horretan, Euskadirentzat jarraitu beharreko ildoak gure balioak izan behar ditu: demokrazia, giza eskubideak eta nortasunak errespetatzea, justizia soziala, garapen iraunkorra, elkarrizketa eta bakea, eta autodeterminazio-eskubidea errespetatzea. Euskadik eskubidea du beste estatu batzuen baldintza berdinetan nazio gisa onartua izateko. Alderdi gisa, Europako erakundeetan dugun ahotsak estaturik gabeko nazioen protagonismoa indartu behar du, eta gure interes ekonomikoak eta kulturalak defendatu, bai eta nortasunezkoak ere.

Hiru helburu estrategikotan jarri behar dugu arreta: energia-lehiakortasuna, lehiakortasun teknologiko-digitala eta gizarte-lehiakortasuna.

Gaur egun, gure autohornikuntza energetikoa ez da %10era iristen, eta horrek esan nahi du kontsumitzen dugun petrolio, gas eta elektrizitate ia guztia inportatu behar dugula. Autohornikuntza %15eraino eramateko, gure industriaren eskari elektrikoari erantzuteko, inbertsioak erakartzeko eta gure lehiakortasuna bultzatzeko, ezinbestekoa da elektrizitate berriztagarria sortzea eta, bide batez, elektrizitatearen sorkuntza deskarbonizatzen laguntzea.

Euskadik bere potentzial teknologikoa ere baliatu behar du, gure aliatua izan behar baitu gure lehiakortasun-eredua hobetzeko, berrikuntza bizkortzeko, pertsonen gaitasunak eta ongizatea handitzeko, burokrazia murrizteko eta demokrazia eta balioak indartzeko. Azken batean, Adimen Artifizialaren, Quantumaren eta beste teknologia disruptibo batzuen garapena gertutik jarraituko duen plataforma estrategiko bat bultzatzea.

Ez da ahaztu behar Euskadik, Europako beste Estatu askok bezala, biztanleria zahartua duela, jaiotza-tasa txikia duela eta belaunaldi-erreleboa bermatuta ez dagoen funtsezko sektoreetan beharrak dituela. Egoera horren aurrean, eta nahiz eta migrazio-fenomenoa desegonkortzeko eta polarizatzekeko elementu gisa erabiltzen ari den, beharrezkoa da gure balioak errespetatuz etorkizuneko proiektua Euskadin aurkitzen duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea.

Euskadik ere baditu garatzen jarraitu beharreko zenbait indargune estrategiko. EAJ-PNVk Makroeskualde Atlantiko bat sortzearen eta Arku Atlantikoa bultzatzen jarraitzearen aldeko apustua egin du, euskal lurraldeen arteko eta inguruko herrialdeekiko lankidetzara indartzeko bide gisa.

Diplomazia kultural eta ekonomikoa indartu beharra aldarrikatzen dugu, Euskadik nazioartean duen proiektzioa hobetu ahal izateko era guztietako erabaki-foeetan eta erakunde alderdianizetan eta Europako lankidetzaren sareetan, herrialde giltzarritzat har gaitzaten. Afrikako eta Asiako hego-ekialdeko lurralde estrategikoekin ere harremanak ezarri nahi ditugu.

Azkenik, Euskadiren garapenerako ezinbesteko indarra den Euskal Diasporari eusten jarraitu behar diogu. Gaur egungo mundu globalizatuan, diasporak, norbanakoek eta komunitateek gure gizartea aberastu dezakete, eta migrazio- eta ekonomia-errealitate berriei buruzko ikuspegi globala eman. Horregatik, Euskal Etxeak topaleku gisa hartuta, diaspora eragile aktibotzat jotzen duen beste bat birdefinitzeko eta egungo ikuspegi gaitzitzeko konpromisoa hartzen dugu. Bere gaitasuna aprobetxatu behar da eragina sortzeko eta nazioarteko euskal lobby gisa jarduteko. Proposamen gisa, Euskal Etxeen sarea erreferentzia-puntu gisa sendotzen jarraitu nahiko genuke, talentuak erakartzeko programak abian jartzea profesional kualifikatuak erakartzeko, Irlandako ereduaren diasporari lotutako inbertsioa eta aliantzak erakartzeko erabiltzea, eta kontsulta- eta erabaki-prozesuetan parte hartu ahal izateko mekanismoak garatzea, munduan euskal nortasuna sustatzeaz gain.

EUROPAKO ITURRI INTERESGARRI BATZUK

European Union External Action Service	Nazioarteko harremanak
Crisis Group	
Foreign Policy	
Council on Foreign Relations	
Institut Français des Relations Internationales	
IEEE- Instituto Español de Estudios Estratégicos	
German Marshall Fund	
Freedom House	
Institute Affari internazionali	
Fragile States Index	
Chathamhouse	
Open Democracy	
European Policy Center	
World View	
Euromed Rights	Migrazioa eta laguntza humanitarioa
ReliefWeb	
The New Humanitarian	
Human Rights Watch	
MIPEX (migration policy index)	
Amnistía Internacional	
Institute for International Conflict Research	Gatazkak
Peace Research Institute of Oslo	
Stockholm International Peace Research Institute	
Proxy wars	
ACLED (Armed conflict- Political violence)	
Website of the Institute for War and Peace Reporting	
Crisis Response Council	
Center for Conflict Analysis at the University of Ulster and the United Nations University	

Climate Change Performance index	Klimaren aldaketa
Basque Center for Climate Change	
Economic Policy Institute	Ekonomia
Center for Economic Policy Research	
World Bank Index	
Bruegel	
DIW Berlin	
European Institute for Gender Equality	Berdintasuna
Institute for Women's Policy Research	
ILGA (LGTBIQ)	

ZIRRI BOKA